

# ***EKITEN Lehiaketa 2015***

## **Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen VII. Lehiaketa.**

Ekintzailtzako EKITEN programan parte hartu duten enpresa-proiekturik onenei sariak banatu zaizkie. Sari banaketa Arrasaten izan zen, 2015eko Ekainak 16an. Ekitaldia Goi Eskola Politeknikoan izan zen eta bertan MUko ordezkariak, Gazte enpresako arduraduna eta Debemen eta Deba Garaia Landa Garapeneko ordezkariak izan ziren.

Aurtengo edizioan, guztira 82 proiektu aurkeztu dira Mondragon Unibertsitatera (MU) eta 276 ikaslek hartu dute parte. Unibertsitate Latinoamerikarretara 14 proiektu aurkeztu dira eta 45 ikaslek hartu dute parte.

Lehiaketa Mondragon Unibertsitatearen Ekiten sustapenerako eta ekintzailetarako programaren barruan kokatzen da, eta babesleak artean Debabarrenako Debemen eta Debagoieneko Deba Garaia Landa Garapenerako Elkartek aurkitzen dira.

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen VII. Lehiaketaren Bigarren saria ORTUZ ORTU proiektuarentzako izan da. Proiektu honekin plataforma bat sortu nahi da, non familiak eta hauen seme-alabak landa balioak ezagutzeko baserrietara hurbiltzen diren.

Proiekturik bideragarrienak eta enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoa duten proiektuak saritzen dira. Horiek dira "Ekiten" programaren epaimahaiak kontuan hartu dituen premisak 2014-2015 edizioko irabazleak aukeratzeko.

EKITEN lehiaketak berrikuntza bat jaso du proiektuen ebaluazio prozesuan, aurtengo edizioan proiektuak aukeratzeko publikoak ere bozka egiteko aukera izan du. Lehenengo fasea gainditu ondoren, bideo bat grabatu dute proiektuak ezagutzera emateko. Bideo hauek, MONDRAGON UNIBERTSITATEko YouTubeko kanalean, EKITEN 2015 zerrendan kargatu dira eta facebooken ere bai. Bideo hauek jaso dituzten "atsegin dut" guztiak izan dira kontutan publikoaren balorazioa egiteko.

Urtez urte indartzen ari den lehiaketa honen helburua hauxe da: ikasleengan ekintzailtzaren kultura eta enpresa propioa edo negozio berri bat martxan jartzeko eta hortaz, ingurunean garapena sortzeko uste osoa sustatzea.

Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko kontuan hartu diren irizpideak hauek izan dira: ideiak aberastasuna eta enplegua sortzeko duen gaitasuna, proposamenaren bideragarritasuna eta ideia orijinaltasuna eta izaera berritzailea.

## **Landa Ingurunearen Garapenerako Ideien eta Proiektuen VII. Lehiaketa.**

### **2.- Saria: ORTUZ ORTU.**

Taldea: Gorka Gainzarain eta Mikel Otaegi (LEINN).